

Bilboko Udalak milioi bat euro jarriko du Deustuko liburutegia egiteko

Moneok diseinatutako eraikina Abandoibarran altxatzen ari dira, eta 2008rako bukatu nahi dute

Erredakzioa. Bilbo

Iñaki Azkuna Bilboko alkateak eta Jaime Oraa Deustuko Unibertsitateko errektoreak liburutegi berria diruz laguntzeko hitzarmena sinatu zuten atzo. Udalak milioi bat euro jarriko du eraikin berria altxatzeko lanak egiteko. Guztira, 36 milioi euroko aurrekontua du proiektuak.

Rafael Moneo arkitektoak diseinatu du Deustuko Unibertsitatearen Ikaskuntza eta Ikerketarako Baliabideen Zentroa izango dena, eta Abandoibarran ari dira eraikitzen, Guggenheim museotik gertu. Lanak 2005eko abuztuan hasi zituzten, eta dena ondo bidean, 2008ko udaberrian bukatuko dute.

Moneok bolumen bakarreko eraikina diseinatu du, edifizio neutro, kolore bako, garden eta funtzionala. Guggenheim museoaren titanioaren distiren efektua leuntze aldera, beira pabesa aukeratu du liburutegia eregiteko material gisa.

HAMAR SOLAIRU.

Guztira, 22.275 metro koadro izango ditu Ikaskuntza eta Ikerketarako Baliabideen Zentroak. Eta bost solairu gorantz, eta beste bost sarrerako solairutik beherantz. Ramon Rubial kaleak Deustuko pasabidearekin bat egiten duen tokian izango du sarrera, tranbiaren geltokiaren parean. Erabilera publikoko eraikina izaki espazio zabala eta erosoak diseinatu dituela esan du Moneok. Liburuak kontsultatzeko eta irakurtzeko hiru areto nagusi edukiko ditu. Gela horiek beirazko leiho handiak izango dituzte, aretoko edozein lekutatik Guggenheim museoa ikusi ahal izateko.

Arkitekto nafarrak, gainera, espazio itxiak ekidin nahi izan ditu, eta barrura begirako eraikina egin beharrean, kanporantz zabalduriko leihoa sortu. Lanerako espazio horien aldamenean, hiruzpalau gela kokatu ditu, liburuzainek beren lana egiteko bulego gisa. Akabera kurbaduna izango dute gela horiek, eraikinaren atzealdeko ertzak biribilduz leundu nahi izan ditu-eta Moneok. Beheko bost solairuetan, biltegia, kafetegia eta aparkalekua jarriko dituzte.